Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko apirilaren 13a, astelehena — 66 — Lunes, a 13 de abril de 2026

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*«Gipuzkoako industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» dirulaguntza programaren oinarri arautzaileen aldaketa eta 2026ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko martxoaren 24ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako plan estrategiko berriaren barruan jasotako funtsezko jarduera zutabeetako bat da ongizatera bideratutako ekonomia sustatzea, jasangarritasun hirukoitzaren sustatzailea, lehiakorra eta aukerak sortzen dituena. Horretarako, bere helburuen artean dago gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea, sektore ekonomikoak sendotuz eta/edo eraldatuz eta berriak sustatuz.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Plan honekin koherentzian, Gipuzkoako enpresek orain aurkezten zaizkien erronketan dituzten beharrei erantzuteko lan egiten du, etorkizunari aurre egiteko indartzen lagunduz eta ekimen berriak sortzen dituzten baldintzak bultzatuz.

Ildo horretan, hainbat jarduera lerro diseinatu dira, Gipuzkoako enpresen bizi ziklo osorako euskarri izan daitezen: enpresa berriak eta enpresen barruan negozio lerro berriak sortzen laguntzea, eta, are lehenago, sorkuntza horretarako haziak jartzen diren oinarriak babestea, kudeaketan, prozesuetan eta estrategian hobekuntza faseak laguntzea, bai eta hazkundea, indartzea eta lankidetza sustatzea ere, nazioarteko merkatuan lehiakorragoak izateko.

Gipuzkoako ehun ekonomikoan enpresa industrial eta tailer txiki ugari daude, enplegua eskaintzeaz gain, pertsonei eta enpresei zerbitzua eta produktuak ematen dizkietenak, nodo txikiz osatutako sare garrantzitsu baina zabala osatuz. Enpresa txiki horiek ahalegin handia egin behar dute lehiakorrak izateko, bereziki modernizatzeko eta gero eta zailagoa den ingurune batean gero eta zorrotzagoa den merkatu bati erantzuteko ezinbestekoak diren inbertsioak egiteko orduan.

Testuinguru horretan diseinatu zen Enpresak Sendotzen programa, industria enpresei lotutako fabrikazio eta konponketa tailerren jarduera ekonomikoari eusten eta lehiakortasuna hobetzen laguntzea helburu duena, haien modernizazioa eta gaitasunak egokitzea ahalbidetuz. Laguntza hori modernizatzea helburu duten enpresa eta tailer horien inbertsio-proiektuetarako dirulaguntzen lerro baten bidez gauzatzen da.

Ildo horretan, orain arte jorratutako dinamikaren balorazio positiboa aintzat hartuta, egokitzat jotzen da apustu estrategiko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Modificación de las bases reguladoras y convocatoria 2026 del programa de subvenciones «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 24 de marzo de 2026:

Uno de los pilares fundamentales de actuación recogidos dentro del nuevo plan estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el periodo 2024-2027 es el fomento de una economía orientada al bienestar, promotora de la triple sostenibilidad, competitiva y generadora de oportunidades. Para ello, se marca entre sus objetivos promover capacidades y oportunidades competitivas mediante la consolidación y/o transformación de los sectores económicos y la promoción de nuevos.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, en coherencia con este Plan, trabaja para dar respuesta a las necesidades de las empresas guipuzcoanas en los retos que se les presentan ahora y ayudando a fortalecerlas para encarar el futuro, así como propiciando las condiciones que generen nuevas iniciativas.

En este sentido se han diseñado distintas líneas de actuación para que sirvan de soporte a las empresas guipuzcoanas en todo su ciclo de vida: desde el apoyo a la creación de nuevas empresas y nuevas líneas de negocio dentro de las empresas, e incluso antes apoyando las bases en las que se ponen las semillas para esa creación, pasando por el acompañamiento, las fases de mejora en la gestión, en los procesos, en la estrategia, así como fomentando el crecimiento, el fortalecimiento y la colaboración para ser más competitivas en el mercado internacional.

En el tejido económico guipuzcoano existe un gran número de pequeñas empresas industriales y talleres, que, además de ofrecer empleo, dan servicio y productos a personas y empresas, conformando una importante red configurada por pequeños nodos pero amplia en su conjunto. Estas pequeñas empresas deben hacer un esfuerzo importante para ser competitivas, especialmente a la hora de realizar inversiones imprescindibles para modernizarse y responder a un mercado cada vez más exigente en un entorno cada vez más complicado.

En este contexto se diseñó el programa Enpresak Sendotzen que tiene como objetivo el apoyo al mantenimiento de la actividad económica y mejora de la competitividad de los talleres fabriles y de reparación vinculadas a empresas industriales, permitiendo su modernización y adecuación de sus capacidades. Este apoyo se materializa a través de una línea de subvenciones a los proyectos de inversión de estas empresas y talleres que tengan como finalidad su modernización.

En este sentido, atendiendo a la valoración positiva de la dinámica abordada hasta el momento, se entiende idóneo conti-

EK\CV GAO-I-2026-02143

horrekin jarraitzea tailerren lehiakortasuna bultzatzeko, Enpresak Sendotzen programaren bidez tailerren modernizazioa eta gaitasunen egokitzapena ahalbidetuz.

Programan ahalik eta erakunde gehien sartzeko oinarri arautzaileetan bi neurri proposatzen dira. Alde batetik, iazko deialdian onuradun izan ziren entitateak aurten onuradun ez izatea; eta bestetik, eskaera bakarra onartzea erakunde bakoitzeko, eta eskaera bakoitzean inbertsio bakarra onartzea.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota daude.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea «Gipuzkoako industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» programaren 2. eta 7. oinarri arautzaileak, 2025eko martxoaren 25eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez onetsiak eta 2025eko apirilaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak (68. zk.), erabaki honen I. eranskinean jasotzen den moduan.

*Bigarren.* Onestea «Gipuzkoako industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» dirulaguntza programaren 2026ko ekitaldiko deialdia. Erabaki honen II. eranskinean dago jasota deialdia.

*Hirugarren.* Baimentzea 1.400.000,00 euroko gastua deialdi honi aurre egiteko, Gipuzkoako 2026 Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretako partida honen kargura:

1.0510.100.770.00.04.2026: 980.000,00 €
5.0510.100.770.00.04.2027: 420.000,00 €

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, baina horrek ez du ekarriko beste deialdi bat egitea. Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kreditua erabilgarri dagoela deklaratu beharko da, dirulaguntzak emateko ebazpena eman aurretik.

*Laugarren.* Ahalmena ematea Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuari eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko baldin eta aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada.

*Bosgarren.* Erabaki honen bidez aldatutako oinarri arautzaileak ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko martxoaren 30a.—Departamentuko idazkari teknikoa. (2143)

nuar con esta apuesta estratégica para impulsar la competitividad de los talleres permitiendo su modernización y adecuación de sus capacidades a través del programa Enpresak Sendotzen.

Con el fin de que accedan al programa el mayor número posible de entidades, se proponen dos modificaciones en las bases reguladoras. Por un lado, que no puedan ser beneficiarias las entidades que lo fueron en la convocatoria anterior; y por otro, admitir una sola solicitud por entidad, entendiéndose por solicitud una inversión.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Modificar las bases reguladoras 2.º y 7.º del programa de ayudas «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa», aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 25 de marzo de 2025 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 9 de abril de 2025 (núm. 68), en los terminos establecidos en el anexo I que se acompaña al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 del programa de ayudas «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa», que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 1.400.000,00 euros para hacer frente a esta convocatoria, con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa 2026:

1.0510.100.770.00.04.2026: 980.000,00 €
5.0510.100.770.00.04.2027: 420.000,00 €

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Facultar al diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes en caso de que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

*Quinto.* Las bases reguladoras modificadas que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 30 de marzo de 2026.—El secretario técnico del Departamento. (2143)

EK\CV GAO-I-2026-02143

I. ERANSKINA

*«Gipuzkoako industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» programaren 2. eta 7. oinarri arautzaileen aldaketak, 2025eko martxoaren 25eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez onetsiak eta 2025eko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak (68. zk.).*

Dirulaguntza-programaren 2. eta 7. oinarri arautzaileak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

*2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.*

2.1. Industria tailertzat hartzen da industria sektorean produktuak edo piezak fabrikatzearekin, konpontzearekin edo muntatzearekin lotutako ekoizpen jarduerak egiteko gunea.

2.2. Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzen onuraduntzat hartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten entitateak:

2.2.1. Gipuzkoan kokatuta egotea.

2.2.2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea oinarri hauek argitaratu baino lehen.

2.2.3. 30 langile edo gutxiago izatea, eta, enpresa txikia izatea, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduak (erregelamendu hori 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen (2023-06-30eko AO, L 167), 2022ko abenduaren 14ko Batzordearen 2472/2022 Erregelamenduak eta 2022ko abenduaren 14ko 2473/2022 Erregelamenduak adierazitakoaren arabera, zeinaren bidez Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz barne merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoriak zehazten baitira, edo hura ordezkatzen edo aldatzen duten xedapenak.

Enpresako langiletzat hartuko dira enpresaren jarduerari atxikitako langile autonomoak, baldin eta, beren izaeragatik, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda egon ezin badira.

2.3. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan daitezke aurreko apartatuan aipatzen diren entitateak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluaren 2. apartatuak adierazietako debeku kasuetako baten mende ez egotea.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuko du.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

— Aurreko urtean dirulaguntza honen onuraduna ez izatea.

ANEXO I

*Modificación de las bases reguladoras 2.º y 7.º del programa de ayudas «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa», aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 25 de marzo de 2025 y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 9 de abril de 2025 (núm. 68).*

Se modifican las bases reguladoras 2.ª y 7.ª del programa de ayudas, quedando redactadas de la siguiente manera:

*Base 2.ª Requisitos de las entidades beneficiarias.*

2.1. Se entiende por taller industrial un espacio destinado a la realización de actividades productivas, relacionadas con la fabricación, reparación o ensamblaje de productos o piezas en el sector industrial.

2.2. Tendrán la consideración de beneficiarias de las ayudas establecidas en las presentes bases reguladoras las entidades que cumplan los siguientes requisitos:

2.2.1. Estar radicadas en Gipuzkoa.

2.2.2. Estar de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE) con anterioridad a la fecha de publicación de estas bases.

2.2.3. Tener 30 o menos personas empleadas, y que tengan la condición de pequeña empresa conforme a lo indicado en los Reglamentos (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio de 2014, modificado por el Reglamento (UE) n.º 1315/2023, de 23 de junio de 2023 (DO, L 167, de 30-06-2023), 2472/2022 de la Comisión, de 14 de diciembre de 2022, y 2473/2022 de la Comisión, de 14 de diciembre de 2022, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea, o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

Se considerará perteneciente a la empresa el personal autónomo adscrito a la actividad de la empresa que, por su condición, no pueda estar dado de alta en el Régimen General de la Seguridad Social.

2.3. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades a que se refiere el apartado anterior, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No estar sometidas a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el artículo 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia machista contra la Mujer.

La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

— No haber sido beneficiaria de esta subvención el año anterior.

EK\CV GAO-I-2026-02143

*7. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

7.1. Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntza gisa bideratuko dira.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuko kostuen % 50 lagunduko da diruz, eta gehienez ere 40.000,00 euro emango dira enpresa bakoitzeko.

Eskaera bakarra onartuko da enpresa bakoitzeko, hau da, inbertsio bat.

7.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edo ondoren egindako aldaketak dirulaguntza kopurua zehazteko erreferentziatzat hartuko dira. Dirulaguntza jarduera kostuaren portzentaje bat izango da eta dirulaguntzaren kopurua guztira ezingo da izan hasieran emandakoa baino handiagoa.

7.3. Dirulaguntza inoiz ez da diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa izango.

II. ERANSKINA

*«Gipuzkoako industria enpresen fabrika tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» programaren 2026ko deialdia.*

*1. Xedea eta oinarri arautzaileak.*

«Gipuzkoako industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko Enpresak Sendotzen» dirulaguntza programaren 2026ko deialdia egitea.

Laguntza-programa horren oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluaren 2025eko martxoaren 25eko Erabakiaren bidez onartutakoak dira (2025eko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 68. zk.), eta Diputatuen Kontseiluaren 2026ko martxoaren 24ko Erabakiaren bidez aldatutakoak. Aldaketa hori deialdi honekin batera argitaratzen da.

*2. Finantzaketa.*

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 1.400.000,00 eurokoa da, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0510.100.770.00.04.2026: 980.000,00 €
5.0510.100.770.00.04.2027: 420.000,00 €

2.2. Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoa dela-eta eskumena duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, baina horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, dirulaguntzak emateko ebazpena eman aurretik kredituaren erabilgarritasun-aitorpena egin beharko da.

*3. Entitate onuradunen baldintzak.*

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte 2. oinarri arautzaile orokorretan aipatzen diren erakundeak.

*4. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 21ean 9:00etan hasiko da. Epe hori amaituko da 2026ko ekainaren 30ean 13:00etan.

*5. Jarduerak hasteko eta gauzatzeko epea.*

Proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi ahal izango dira.

Gauzatzeko eta justifikatzeko epea laguntzaren banakako ebazpenean adieraziko da. Gauzatzeko epea inoiz ez da izango 2027ko martxoaren 31 baino geroagokoa.

Era berean, proiektuak justifikatzeko data ez da inola ere izango 2027ko apirilaren 30a baino geroagokoa.

*Base 7.ª Cuantía de las subvenciones.*

7.1. Las ayudas se instrumentarán en forma de subvenciones no reintegrables.

Se subvencionará el 50 % de los costes subvencionables del proyecto, siendo el máximo de subvención por empresa 40.000,00 €.

Se admitirán una única solicitud por empresa, entendiéndose por solicitud una inversión.

7.2. El presupuesto presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

7.3. Las subvenciones en ningún caso podrán superar el coste total de la actividad subvencionada.

ANEXO II

*Convocatoria 2026 de las ayudas del programa «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa».*

*1. Objeto y bases reguladoras.*

Convocar para el año 2026 las subvenciones del programa de ayudas «Enpresak Sendotzen para la modernización de equipamientos en los talleres fabriles y de reparación de las empresas industriales de Gipuzkoa».

Las bases reguladoras de dicho programa de ayudas son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 25 de marzo de 2025 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 68 de 9 de abril de 2025) y modificadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de marzo de 2026. Dicha modificación se publica junto con la presente convocatoria.

*2. Financiación.*

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 1.400.000,00 euros con cargo a las siguientes partidas:

1.0510.100.770.00.04.2026: 980.000,00 €
5.0510.100.770.00.04.2027: 420.000,00 €

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*3. Requisitos de las entidades beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarias las entidades que se mencionan en la base 2.ª de las bases reguladoras generales.

*4. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará el 21 de abril de 2026 a las 9:00 horas, y finalizará a las 13:00 horas del 30 de junio de 2026.

*5. Plazo de inicio, ejecución y justificación de las actuaciones.*

Los proyectos podrán iniciarse a partir del 1 de enero de 2026.

El plazo de ejecución y justificación se indicará en la Resolución individual de la ayuda. En ningún caso, el plazo de ejecución podrá ser posterior al 31 de marzo de 2027.

Así mismo, en ningún caso la fecha de justificación de los proyectos podrá ser posterior al 30 de abril de 2027.

EK\CV GAO-I-2026-02143

Deialdi hau argitaratzen den egunean amaituta dauden proiektuen kasuan, justifikazio-epea 2026ko maiatzaren 29an amaituko da.

*6. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

6.1. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Ardurapeko aitorpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena, ez eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluaren 2. zenbakiak adierazietako debekukasuetako baten mende ez egotearena ere. Eta, hala badagokio, aurreko hiru urteetan jasotako bestelako minimis dirulaguntzei buruzkoa.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, estatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak aipatuz.

c) Proiektuaren memoria; bertan, egin beharreko inbertsioak deskribatuko dira, bai eta inbertsioak egiteko epeak ere (egin beharreko inbertsioetarako aurreikusitako ordainketa eta eskaera-datak adieraziko dira).

d) Egin beharreko inbertsioen eskaeraren kopia edota proformako faktura.

e) Enplegatuen kopurua egiaztatzeko: Alta-egoeran dauden enpleguen batez besteko plantillaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana (gehienezko epea: 12 hilabete).

Kooperatiba entitateen kasuan, Gizarte Segurantzarekin kolaboratzaile den entitatearen ziurtagiria, entitate eskatzaileko bazkideei dagokien batez besteko enplegu kopurua ziurtatzeko.

Langile autonomoen kasuan, Autonomoen Araubideari dagozkion kotizazio agiriak aurkeztuko dira, eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteari dagozkionak.

f) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altari buruzko dokumentua.

6.2. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, bai eta alta emanda dauden EJZren epigrafeetako datuak ere.

Eskabidean berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

*7. Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erabakia eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, horrez gain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 17. artikuluari jarraiki.

Onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

En el caso de proyectos finalizados a la fecha de publicación de esta convocatoria, el plazo de justificación finalizará el 29 de mayo de 2026.

*6. Documentación que acompaña a la solicitud.*

6.1. Junto con la solicitud deberá incluirse la siguiente documentación:

a) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no hallarse incursa en cualesquiera de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni de estar sometidas a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia machista contra la Mujer. Y, en su caso, sobre ayudas «de minimis» recibidas por la empresa en los 3 años precedentes.

b) Declaración, en su caso, de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas.

c) Memoria del proyecto con la descripción de las inversiones a realizar así como los plazos para su realización (se indicarán las fechas de pedido y pago previstas de las inversiones a realizar).

d) Copia del pedido y/o factura proforma de las inversiones a realizar.

e) Para la comprobación del número de personas empleadas: Certificado de plantilla media de empleos en situación de alta emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social (plazo máximo 12 meses).

En el caso de entidades cooperativas, certificado de la entidad colaboradora con la Seguridad Social que acredite el número medio de empleos correspondiente a los socios de la entidad solicitante.

En el caso de trabajadores autónomos, los boletines de cotización correspondientes al Régimen de Autónomos, correspondientes al último mes anterior al momento de la presentación de la solicitud.

f) Documento relativo al alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

6.2. El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos verificará, a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público, el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como los datos de los epígrafes del IAE en situación de alta.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones.

*7. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación será de 6 meses, a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

Dicha resolución se notificará individualmente a cada solicitante, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días naturales a partir de la fecha de notificación para aceptar la subvención que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

EK\CV GAO-I-2026-02143

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**Enpresak Sendotzen Programa: industria enpresen fabrika-tailerretako ekipamenduak modernizatzeko eta konpontzeko dirulaguntzak**
**Programa Enpresak Sendotzen: modernización de equipamientos en talleres fabriles y de reparación de empresas industriales**

ESKAERA / SOLICITUD

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Espedientea Expediente** | | **Data Fecha** | | **Sarrera kodea Código acceso** | |

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS SOLICITANTE

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eskatzailearen izena Nombre solicitante** | | **Sexua Sexo** | | |
| **IFZ NIF** | | **Posta Kodea Código Postal** | | |
| **Helbidea Dirección** | | **Ataria/Solairua Portal/Piso** | | |
| **Herria Localidad** | | **Probintzia Provincia** | | |
| **Helbide elektronikoa Correo electrónico** | | **Telefonoak Teléfonos** | | |
| **Kontua Cta Cte.** | | **Faxa Fax** | | |

## HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Pertsonaren izena Nombre de la persona** | | **Sexua Sexo** | | |
| **IFZ NIF** | | **Posta Kodea Código Postal** | | |
| **Helbidea Dirección** | | **Probintzia Provincia** | | |
| **Herria Localidad** | | **Telefonoak Teléfonos** | | |
| **Helbide elektronikoa Correo electrónico** | | **Faxa Fax** | | |

## Onuradun izatearen aitorpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez nigan ez ordezkatzen dudan erakundean ez dagoela pertsona edo erakunde onuradun izatea eragozten duen inguruabarrik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. Artikuluan aurreikusitakorik. Era berean, ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez testu bategina onetsitakoan, aurreikusitako dirulaguntzen onuradun ezarritako debeku-kasuetako baten mende.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impidenobtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en su texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

## Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzearen adierazpena Declaración del cumplimiento del código de conducta y marco de integridad institucional

Konpromisoa hartzen dut Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen dirulaguntza publikoei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2an hartutako erabakiaren arabera.

Me comprometo al cumplimiento en todos sus términos del código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión del 2 de octubre del 2018.

## Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalak erabiliko dira dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta Foru Gobernantza Publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua betez. Deialdiaren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskabidean oinarritutako helburua. Tratamenduaren arduraduna deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia izango da. Nortasun, harreman eta kontu korronte datuak kontabilitate erregistroetan agertzen ez badira, nortasun, harreman eta kontu korronte datuak tratamendu batean sartuko dira Finantza eta Aurrekontu zuzendaritza nagusiaren ardurapean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideak gauzatzea eta betebeharrak ordaintzea helburu duena.
Dirulaguntza emateko prozedura eta egin daitezkeen erreklamazioak izapidetzen diren bitartean gordeko dira datuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, NISAE elkarreragintasunerako nodoaren, sare korporatiboko aplikazioen edo beste sistema batzuen bidez, izapide hau ebazteko behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu. Zehazki, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta kontu korrontearen titulartasuna betetzen direla egiaztatuko da. Era berean, eskaera honi aplikatzen zaion araudian eskatzen diren agiri hauek egiaztatu eta eskuratuko dira:

- JARDUERA EKONOMIKOK:EGUNGO EGOERA

Egiaztapen horren eta bere datu pertsonalen kontsultaren aurka egiten badu, eskatzaileak, agiriak aurkezteaz gain, arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela. Eskubide hori balia dezake, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo mugatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzenduta, https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/datuen-babesa/eskubideak-erabiltzea-en horretarako ezarritako formularioen bidez.

Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideez baliatzeari dagokienez, helbide honetan ere jar zaitezke harremanetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella. El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria. En caso de que los datos de identidad, contacto y cuenta corriente no figuren en los registros contables, los datos de identidad, contacto y cuenta corriente se incorporarán a un tratamiento bajo la responsabilidad de la dirección general de Finanzas y Presupuestos cuya finalidad es la realización de derechos y pago de obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2026-02143

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, de las aplicaciones de la red corporativa u otros sistemas efectuará las consultas y verificaciones necesarias para la resolución del presente trámite. En concreto, se comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias, obligaciones frente a la Seguridad Social, así como la titularidad de la cuenta corriente. Igualmente, se verificarán y obtendrán los siguientes documentos exigidos en la normativa aplicable a esta solicitud:

- IAE: SITUACION ACTUAL

En caso de oponerse a esta verificación y a la consulta de sus datos personales, la persona solicitante además de aportar los documentos deberá justificar motivadamente su oposición. Puede ejercer este derecho, así como el de acceso, rectificación, supresión o limitación dirigiéndose a la persona responsable, a través de los formularios dispuestos en https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/proteccion-datos/ejercicio-derechos.
Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

## Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

## PROIEKTUA / PROYECTO

| |
|---|
| **Izena**<br>**Denominación**<br>**Proiektuaren azalpena**<br>**Descripción proyecto** |

### Eskatutako zenbatekoa / Importe solicitado

| |
|---|
| **Eskatutako zenbatekoa**<br>**Importe solicitado** |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

| | Ditu<br>Tiene | | Ez ditu<br>No |
|---|---|---|---|

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO**

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobación | Zenbatekoa<br>Importe | Onartutako dirulaguntza<br>Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| **GUZTIRA/ TOTAL** | | | | |

| | Ditu<br>Tiene | | Ez ditu<br>No |
|---|---|---|---|

**MINIMIS LAGUNTZEN AITORPENA DECLARACIÓN AYUDAS MINIMIS**

Hauek dira erakunde publikoek edo aurrekontu publikoen finantzatzen diren erakunde pribatuek aurreko hiru urteetan emandako minimis dirulaguntzak:

Todas las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos concedidas en los tres años previos son las siguientes:

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobacion | Zenbatekoa<br>Importe |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | **GUZTIRA / TOTAL** | |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

| | |
|---|---|
| Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte). | La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH |
| EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoan zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv | El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv |
| HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean. | El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia. |

EK\CV GAO-I-2026-02143